



JAUN/ANDRE HORI:

EXCMOIA. SR.IA:

Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorritik, **2026ko APIRILAREN 29an** egingo den bilerarako deia egiten dizut. Bilera Gasteizen egingo da, Lehendakariitzako egoitzan, 10:00etan. Sarbide telematikoa ere egongo da. Honako hau izango da

De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, le convoco a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakariitza, a las 10:00 horas del día **29 DE ABRIL DE 2026**. Se dispondrá de acceso vía telemática, con el siguiente

**GAI-ZERRENDA****ORDEN DEL DÍA**

Aurreko bileraren akta irakurri, eta, hala badagokio, onartzea.

1

Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior.

**LEHENDAKARITZA****LEHENDAKARITZA**

Erabaki-proposamena, Garapen Agentzien Euskal Elkarteari (GARAPEN) dirulaguntza zuzena ematekoa, tokiko ingurunean 2030 agenda sustatzeko hainbat proiektu finantzatzen laguntzeko.

2

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Asociación Vasca de Agencias de Desarrollo - GARAPEN, para colaborar en la financiación de distintos proyectos para impulsar la agenda 2030 en el entorno local.

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA****DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

Dekretu-proiektua, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua aldatzeko.

3

Proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística.

Erabaki-proposamena, baimena emateko dena programa-kontratuaren izenpetzeko "Radio Televisión Vasca-Euskal Irrati Telebista" zuzenbide pribatuko erakunde publikoarekin, 2026-2029 aldirako.

4

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción del Contrato Programa con el Ente Público de Derecho Privado "Radio Televisión Vasca-Euskal Irrati Telebista", para el periodo 2026-2029.



## **EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA**

Dekretu-proiektua, Euskal Estatistika Kontseiluko kideak izendatzekoa.

5

## **DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO**

Proyecto de Decreto de nombramiento de vocales del Consejo Vasco de Estadística.

## **OGASUN ETA FINANTZA SAILA**

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa 54120 Programan (Ikerketa) 2029 eta 2030eko ekitaldietako konpromiso-kredituen urteko zenbatekoen banaketa aldatzeko, euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak finantzatzeko (guztira, 7.000.000 euro).

6

## **DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la modificación de la distribución de anualidades de créditos de compromiso de los ejercicios 2029 y 2030 en el Programa 54120 - Investigación, para financiar las actividades de los grupos de investigación del sistema universitario vasco, por importe total de 7.000.000 de euros.

Erabaki-proposamena, 2026ko ekitaldian diruzaintzako gerakinen kontura Kreditu Globala zabaltzekoa (38.038.864,86 euro) eta 2026ko ekitaldian Kreditu Globala erabiltzekoa (6.010.000 euro), Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren kreditu-beharrizanei aurre egiteko.

7

Propuesta de Acuerdo de ampliación del Crédito Global con cargo a Remanentes de Tesorería, por importe de 38.038.864,86 euros en el ejercicio 2026 y de disposición del Crédito Global por un importe de 6.010.000 euros en el ejercicio 2026, para atender las necesidades crediticias del Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad.

## **GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA**

Dekretu-proiektua, zeinaren bidez formalizatzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren Erabakia, ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretuaren bidez EAERI eskualdatutako Estatuko Administrazioaren egiteko eta zerbitzuei atxikitako ondare-baliabideak aldatzekoa (474/2021 Dekretua, espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko egitekoak eta zerbitzuak EAERI eskualdatzekoa).

8

## **DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO**

Proyecto de Decreto por el que se formaliza el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias Estado-Comunidad Autónoma del País Vasco, de modificación de los medios patrimoniales adscritos a las funciones y servicios de la Administración del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 474/2021, de 29 de junio, sobre ejecución de la legislación del Estado en materia penitenciaria.

Dekretu-proiektua, "Asociación Bermeo capital mundial del atún - Bermeo atunaren munduko hiriburu Elkarte" izeneko elkarte onura publikokoa dela aitortzekoa.

9

Proyecto de Decreto por el que se reconoce de utilidad pública a la asociación denominada Asociación Bermeo capital mundial del atún - Bermeo atunaren munduko hiriburu Elkarte.



- |   |    |   |
|---|----|---|
| <p>Dekretu-proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta eginkizunak arautzen dituen Dekretua.</p>  | 10 | <p>Proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se regula la estructura y funciones del Instituto Vasco de Administración Pública.</p>  |
| <p>Erabaki-proposamena, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.Aren (EJIE) estatutu sozialen aldaketa onartzekoa.</p>  | 11 | <p>Propuesta de Acuerdo de aprobación de la modificación de los estatutos sociales de la Sociedad Anónima Pública Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte - Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A. - Eje.</p>   |
| <p>Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastu-kontratua baimentzekoa, Eusko Jaurlaritzako hainbat eraikinetarako segurtasun-zerbitzua eta zerbitzu osagarriak batera kontratatzeko (2026-2028).</p>  | 12 | <p>Propuesta de Acuerdo de autorización de un contrato de gasto superior a 5.000.000 de euros, cuyo objeto es la contratación conjunta de servicio de seguridad y servicios auxiliares en diversos edificios del Gobierno Vasco (2026-2028).</p>  |
| <p>Erabaki-proposamena, zeinaren bidez Jaurlaritzaren iritzia ematen baita Euskal Talde Popularra legebiltzar-taldeak Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legea aldatzeko egin duen Lege-Proposamena aintzat hartzeari buruz, laguntzailearen figurari eta debekualdian eragindako kalteengatik Foru Aldundiek duten erantzukizun subsidiarioari dagokienez.</p> | 13 | <p>Propuesta de Acuerdo de manifestación del criterio del Gobierno en relación con la toma en consideración de la Proposición de Ley, formulada por el grupo parlamentario Grupo Popular Vasco, de modificación de la Ley 2/2011, de 17 de marzo, de Caza del País Vasco, en materia de figura del acompañante y de la responsabilidad subsidiaria de las Diputaciones Forales por daños causados durante el período de veda.</p> |
| <p>Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda eta dirulaguntzen Plan estrategikoen zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin.</p>   | 14 | <p>Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico y Planes estratégicos de subvenciones para conocimiento del Consejo de Gobierno.</p>  |

## SEGURTASUN SAILA

- |  |    |   |
|--|----|---|
| <p>Dekretu-proiektua, jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen Dekretua bigarren aldatzekoa.</p>   | 15 | <p>Proyecto de Decreto de segunda modificación del Decreto por el que se aprueba el reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas.</p>  |
| <p>Erabaki-proposamena, zeinaren bidez baimentzen baita Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) arteko kudeaketa-gomendiorako akordioa. Helburua: Ertzaintzako lehen eta bigarren hizkuntza-eskakizunetan hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak egitea eta euskara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko poliziaren oinarritzko eskalako agente kategorian sartzeko ikastaroko ikasleei.</p> | 16 | <p>Propuesta de Acuerdo de autorización del acuerdo de encomienda de gestión entre la Academia Vasca de Policía y Emergencias y el Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos (HABE), para la celebración de cursos de capacitación lingüística en el primer y en el segundo perfil lingüístico de la Ertzaintza, y de impartición de euskera al alumnado del curso de ingreso en la categoría de agente de la escala básica de la policía del País Vasco.</p> |

## DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD



Erabaki-proposamena, Usansoloko Udalari (Bizkaia) udalerrri horretan Udaltzaingoaren Kidegoa sortzeko baimena ematekoa.

17

Propuesta de Acuerdo por la que se autoriza la creación por el Ayuntamiento de Usansolo (Bizkaia) de su Cuerpo de Policía Local.

### HEZKUNTZA SAILA

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Dekretu-proiektua, zeinaren bidez ezartzen baita Mugikortasun Seguru eta Jasangarrirako Prestakuntzako goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculumua.

18

Proyecto de Decreto por el que se establece el currículo correspondiente al título de Técnica Superior o Técnico Superior en Formación para la Movilidad Segura y Sostenible.

Dekretu-proiektua, zeinaren bidez ezartzen baita Oliba-oliogintzako eta ardogintzako teknikariaren tituluari dagokion curriculumua.

19

Proyecto de Decreto por el que se establece el currículo correspondiente al título de Técnica o Técnico en Aceites de Oliva y Vinos.

### ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILA

### DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y AGENDA URBANA

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa "Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. (Visesa)" sozietate publikoarekin sinatu beharreko 2026ko programa-kontratua.

20

Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del Contrato-Programa 2026 a suscribir con la sociedad pública "Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.

### ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

### DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Dekretu-proiektua, Retina Araba Begisare: Asociación de Distrofias Hereditarias de Retina de Álava / Arabako Erretinako Distrofia Hereditarioen Elkartearen gizarte-interesekotzat aitortzekoa.

21

Proyecto de Decreto por el que se declara de interés social a Retina Araba Begisare: Asociación de Distrofias Hereditarias de Retina de Álava / Arabako Erretinako Distrofia Hereditarioen Elkartearen.

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko, Migrazioen eta Bizikidetzaren Ikuspegi katedra eratzeko.

22

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio de colaboración con la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, por el que se constituye la cátedra Ikuspegi de Migraciones y Convivencia.

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, 2026. urtean gazteen emantzipaziorako Emantzipa Programarako laguntzen deialdia finantzatzeko.

23

Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, para financiar la convocatoria de ayudas al Programa Emantzipa de emancipación juvenil, en el año 2026.



Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren 1. artikuluaen a), b) eta lehengo d) apartatuetan aurreikusitako dirulaguntza-lerroei erantzuteko.

24 Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, para atender a las líneas subvencionales previstas en los apartados a), b) y antiguo d) del artículo 1 del Decreto 164/2019, de 22 de octubre, sobre ayudas para la conciliación de la vida familiar y laboral.

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, urriaren 10eko 149/2023 Dekretuan aurreikusitako 2025eko gizarte-bonu termikoaren kontzeptuan. Dekretu horren bidez, trantsizio energetikorako eta kontsumitzaileen babeserako presako neurriei buruzko urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretuak sortutako gizarte-bonu termikoaren kudeaketa, ebazpena eta ordainketa arautu ziren, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan. (2026ko ekitaldia).

25 Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, en concepto de Bono Social Térmico 2025, previsto en el Decreto 149/2023, de 10 de octubre, por el que se regula la gestión, resolución y pago del Bono Social Térmico creado por el Real Decreto-Ley 15/2018, de 5 de octubre, de medidas urgentes para la transición energética y la protección de los consumidores en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi (ejercicio 2026).

### **TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA**

### **DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO**

Dekretu-proiektua, Euskadiko Turismo-Mahaiaren funtzionamendu- eta antolaketa-araubideari buruzkoa.

26 Proyecto de Decreto de régimen de funcionamiento y organización de la Mesa de Turismo de Euskadi.

Erabaki-proposamena, zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa Arabadendak-Arabako Merkatarien, Ostalarien eta Zerbitzu Enpresen Elkarteari, "Educación en valores para consumir local y red de puntos seguros: tejiendo barrio, educando futuro" proiekturako (2026-2027).

27 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Agrupación de Asociaciones de Comercio, Hostelería y Empresas de Servicios de Araba "Arabadendak", para el proyecto "Educación en valores para consumir local y red de puntos seguros: tejiendo barrio, educando futuro", 2026-2027.

### **ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA**

### **DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Mendinet - Landa Garapenaren Aurrerapenerako Elkartea tokiko ekintza-taldeak sinatu beharreko lankidetzahitzarmena, "2026ko ekitaldian landa-eremuko emakumeak ikusarazteko hileko ekitaldien zikloa" sustatzeko.

28 Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del convenio de colaboración a suscribir con el Grupo de Acción Local Asociación para el Progreso del Desarrollo Rural - Mendinet, para el impulso del "Ciclo de eventos mensuales para la visibilización de las mujeres rurales durante el ejercicio 2026".

### **IZENDAPENAK ETA KARGU-KENTZEAK**

### **NOMBRAMIENTOS Y CESES**

**LEGEBILTZAR-EKIMENAK**

**INICIATIVAS PARLAMENTARIAS**

Vitoria-Gasteizen, 2026ko apirilaren 24an. En Vitoria-Gasteiz, 24 de abril de 2026.

**IZPTA./Fdo.: UBARRECHENA CID, MARIA.  
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU,  
JAURLARITZAREN IDAZKARI ETA BOZERAMAILEA  
CONSEJERA DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO,  
SECRETARIA Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO**



*Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria*

*El Lehendakari del Gobierno Vasco*

**LEHENDAKARIAREN BAIMENA, GOBERNU KONTSEILUAREN 2026ko APIRILAREN 29ko BILERA TELEMATIKOKI EGITEKO**

2022ko maiatzaren 24an, Gobernu Kontseiluak Erabaki bat hartu zuen, Gobernu Kontseiluaren bilera telematikokoak puntualki egiteko jarraibideak onartzen dituen, eta erabaki horren arabera, beharrezkoa da lehendakariak, berariaz eta arrazoituta, bilera horiek telematikoki egitea baimentzea.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, Ibone Bengoetxea Otaolea andrea, ezin izango da fisikoki bertaratu Gobernu Kontseiluak apirilaren 29an Vitoria-Gasteizen egingo duen bilerara.

Aztergaien zerrenda ohikoa dela ikusita eta ebatzi beharreko gaiak kontuan hartuta, egokia da bilera telematikoa egitea, arestian aipatutako Gobernu Kontseiluaren Erabakian adierazitako baliabide teknikoak erabiliz.

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek aukera ematen dute, bideokonferentzia bidez, irudia eta soinua bi noranzkoetan eta aldi berean komunikatzeko; eta hortaz, geografikoki urruti dauden bi pertsonaren edo pertsona-talderen arteko denbora errealeko ikusizko, entzunezko eta ahozko interakzioa izateko. Halaber, bermatu egiten dute eztabaidetan eta hausnarketetan askatasunez parte hartzea.

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek modu egokian bermatzen dituzte, halaber, parte-hartzaileen identitatea eta segurtasuna, kanpoko interferentziarik ez egotea, esku hartzeko askatasuna eta eztabaiden izaera sekretua edo erreserbatua.

**AUTORIZACIÓN DEL LEHENDAKARI PARA QUE LA REUNIÓN DEL CONSEJO DE GOBIERNO DE 29 DE ABRIL DE 2026 SE CELEBRE DE FORMA TELEMÁTICA**

Con fecha de 24 de mayo de 2022 el Consejo de Gobierno adoptó un Acuerdo por el que se aprueban las directrices para la celebración puntual de reuniones telemáticas de Consejo de Gobierno, siendo necesario conforme al mismo que el Lehendakari autorice, de forma expresa y motivada, la celebración de dichas reuniones de forma telemática.

La consejera de Cultura y Política Lingüística, Dña. Ibone Bengoetxea Otaolea, no podrá asistir físicamente a la reunión del Consejo de Gobierno a celebrar el día 29 de abril en Vitoria-Gasteiz.

Dado el carácter ordinario del orden del día, y a la vista de los asuntos a resolver, procede realizar una reunión telemática utilizando los medios técnicos que se indican en el Acuerdo de Consejo de Gobierno antes referido.

Los medios técnicos indicados en esta autorización permiten, mediante videoconferencia, la comunicación bidireccional y simultánea de imagen y sonido y, por tanto, la interacción visual, auditiva y oral en tiempo real entre dos personas o grupos de personas geográficamente alejadas, garantizando la libre participación en los debates y deliberaciones.

Los medios técnicos indicados en esta autorización garantizan también de forma adecuada la identidad y seguridad de las personas participantes, la ausencia de interferencias externas, la libertad de intervención y el carácter secreto o reservado de los debates.



*Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria*

*El Lehendakari del Gobierno Vasco*

Hori horrela izanik,

En su virtud,

**HONAKOAK BAIMENTZEN DITUT**

**AUTORIZO**

1.- Gobernu Kontseiluak 2026ko apirilaren 29an egingo duen bilera telematikoki egiteko baimena ematen dut, honako Baimen honetan adierazita dauden baldintzetan.

1.- Que la reunión del Consejo de Gobierno de 29 de abril de 2026, se celebre de forma telemática, en los términos expresados en la presente Autorización.

2.- Telematikoki konektatuko diren Gobernu Kontseiluko kideek ZOOM plataforma digitala erabili beharko dute; eta, horretarako, esteka honetan sartu beharko dute:  
<https://euskadi.zoom.us/j/91365261293>

2.- Que las y los miembros del Consejo de Gobierno que se conecten telemáticamente, deberán de utilizar la plataforma digital ZOOM, accediendo al siguiente enlace:  
<https://euskadi.zoom.us/j/91365261293>

Bileraren identifikazio zenbakia: 913 6526 1293

ID de reunión: 913 6526 1293

Pasahitza: 032729

Código de acceso: 032729

3.- Honako baimen hau bilkura-deialdiari eransteke baimena ematen dut, bilerari dagokion gai-zerrendarekin batera.

3.- Que la presente autorización se incorpore a la convocatoria de la sesión junto con el orden del día.

Vitoria-Gasteizen, digitalki sinatua.

IMANOL PRADALES GIL.

Lehendakaria.